

STARTINNOVA

IDEIA

STONES TALDEA

Nori ez zaizkio inoiz giltzak etxe barruan ahaztu eta kale gorrian gelditu behar izan da?

Hona hemen Punpan, abisatzen zaituen bakarra.

Punpan ontzi bat da, txip bati konektatuta dagoena. Txipa, sarraila duen ate bati itsatsita joango da eta txipa atean gertatzen diren mugimendu guztiak jasoko ditu. Honekin batera, ontzia sentso batekin dator. Sentso honen bidez, giltzen pisua neurtuko du eta atea irekitzen eta ixten den bakoitzean, giltzak dauden identifikatuko du, alarma bat jarriz, hau da, atea irekitzen edo ixten den bakoitzean, giltzak ontzian hautematen baditu, alarma piztuko da.



Gainera, gure produktua diseinu pertsonalizatuak izango ditu, gure bezeroak eskatutakoaren arabera.

Gure produktua erosteko, denda fisiko bat eta webgune bat izango dugu kontsumitzaileen nahiak asetzeko.

Web orrialdean sartzekoan, bezeroek ikusiko duten lehenengo gauza gure ideiarekin informazioa izango da, hau da, nola bururatu ziztaigun produktua, nola izan den hau martxan jartzea, dendaren kokalekua eta enpresaren telefonoa. Informazio honen bukaeran bezeroek dauzkaten galderak edo kezkek idazteko, atal bat aurkituko dute. Aipatutako kezkek, arazorik gabe erantzungo ditugu.

Orriaren goialdean, produktua eta diseinua agertuko dira:

Produktua agertzen den kutxan klik egiterakoan, dendan dauzkagun diseinu guztiak agertuko dira, guk geuk diseinatutako ontziak. Gainera, ontzi bakoitzaren prezioa agertuko da ontziaren argazkiaren ondoan.

Diseinua goialdean dagoen kutxa batean agertuko da, han sartzerakoan 2 orrialde egongo dira. Lehenengoan, hainbat formako ontziak agertuko dira eta bigarreanean zenbait kolore eta marrazki desberdin egongo dira. Jakina, forma eta kolore bakoitzaren ondoan beraien prezioa agerian jarriko dugu. Diseinuarekin amaitzerakoan ontziaren prezio globala aterako da.

Azkenik, kontsumitzaile bakoitzaren erosketa finala iritsiko zaigu, ahal dugun azkarren martxan jartzeko. Gutxi gora behera 3-4 egunetan prest egongo da. Aste bat baino gehiago igaro ondoren produktua prest baldin ez badago, deskontu bat egingo zaio bezeroari.